

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2050

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 4koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita 2019ko dirulaguntza deialdi bat, ekitaldi horretan EAeko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuei zuzendua.

Uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuak honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen ditu: EAeko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa. Betiere, 1997ko abenduaren 11n sinatu zen EAeko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioaren III. atalean («Prebentziorako prestakuntza») ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.).

Uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 2019ko ekitaldian gauzatzen diren ekintzetarako dirulaguntzen urteko deialdi publikoa onartzen da, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin bat etorritik.

Horiek horrela, 125/2018 Dekretuaren 9. artikuluan (Deialdia eta Baliabide Ekonomikoak) ezarritako ahalmenaz baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua da 125/2019 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia onartzea, 2019ko aurrekontu-ekitaldirako. Uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuak honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen ditu: EAeko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek 2019ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.).

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

300.000 euro bideratuko dira prebentzio-ordezkariek trebatzeko deialdiaren dirulaguntzak finantzatzeko. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legeak baimendutako kredituen arabera (aurrekontu horiek 2019ko ekitaldira luzatu ziren); gainera, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren IX. tituluan aurrekontu-luzapenaren araubideari buruzko ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza-deialdi honek badu aurrekontu nahikoa (1/2011 Legegintzako Dekretua, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu batekina onartzen duena).

Ebazpen honetan ezartzen denez, deialdi honen guztizko aurrekontu-zuzkiduratik, gehienez ere, 100.000 euro bideratuko dira zati arautzailearen prestakuntza finantzatzeko, eta, gehienez ere, 200.000 euro, zati teknikoaren prestakuntza finantzatzeko, hala xedatuta baitago uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 9. artikuluan. Dekretu horren bidez, honako programa honen oinarri

orokorrak ezartzen dira: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Deialdi hau egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten entitateei zuzendutako dago. Erakundeok prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza emateko betekizunak bete behar dituzte, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuan araututakoari jarraituz (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.), eta, gainera, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak egiaztatuak izan behar dute. Hona hemen entitateok:

1.– Prestakuntza-zentroak, publikoak zein pribatuak.

2.– Erakunde sindikalak.

3.– Prebentzio-zerbitzu egiaztatuak, horiek itunduak dituzten enpresetako prebentzio-ordezkariei zuzenduak.

Publikotasun-ondorioetarako, Osalanen web orrian jarriko da egiaztatutako entitateen zerrenda.

4. artikulua.– Eskaeren tramitazioa.

1.– EAEko enpresa edo lantokietan prebentzio-ordezkariei prestakuntza emateko egiaztatuak dauden erakundeek eskatu ahal izango diote dirulaguntza hau Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari.

2.– Prestakuntza-ekintza bakoitzerako, dirulaguntza jasotzeko eskabide bat aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzaren euskadi.eus egoitza elektronikoko tramitazio elektronikoen bidez, eta, eskabidearekin batera, a) eta b) apartatuetan adierazitako helbide elektronikoetan eskuragarri dauden dokumentuak aurkeztuko dira. Ebazpen honetako I. eranskinean zehaztuta dago eskabidearen edukia.

a) Arau-arloko prestakuntzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egingo da dirulaguntza jasotzeko eskabidea, behean adierazitako helbide elektronikoa. Horretarako, zenbait dokumentu deskargatu beharko dira helbide horretan, eta eskabideari atxiki:

– Arau-arloa:

Prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029804).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-normativa-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-arau-arlokoa-pok/y22-izapide/eu>

b) Arlo teknikoko prestakuntzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egingo da dirulaguntza jasotzeko eskabide elektronikoa, behean adierazitako helbide elektronikoa. Horretarako, zenbait dokumentu deskargatu beharko dira helbide horretan, eta eskabideari atxiki:

– Arlo teknikoa:

Prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029904).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-tecnica-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-tek-nikoa-po/y22-izapide/eu>

3.– Aurten deialdi hau argitaratu aurretik eman diren prestakuntza-ekintzetarako, bai zati arautailerako bai zati teknikorako, dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

– «III. eranskina. Prestakuntza-ekintzaren datuak», dirulaguntza jasotzeko eskabideari loturiko prestakuntza-ekintzan parte hartu dutenen behin betiko datuak jasotzen dituen dokumentua.

4.– Gauzatuko diren prestakuntza-ekintzetarako, zati arautailerako edo zati teknikorako, dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

– «III. eranskina. Prestakuntza-ekintzaren datuak», dirulaguntza jasotzeko eskabideari loturiko prestakuntza-ekintzan parte hartuko dutenen behin behineko datuak jasotzen dituen dokumentua.

5.– Espediente bakoitzera sartzeko, izapidetzeko eta jarraipena egiteko, entitate eskatzai-leak «Nire Karpeta» atalera sartu beharko du egoitza elektronikotik (<https://www.euskadi.eus/y22-home/eu/>).

5. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epeak.

1.– Laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2019ko azaroaren 30ean amaituko da, 23:59an, edo deialdi honen xede diren dirulaguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak agortzean. Azken kasu horretan, EHAAn emango du horren berri Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak.

2.– Entitate prestatzaileek programatuta daukaten prestakuntza-ekintza bakoitza hasi baino 7 egun lehenago gutxienez eskatu beharko diote dirulaguntza Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari. Aurten deialdi hau argitaratu aurretik eman diren prestakuntza-ekintzen kasuan, 2 hileko epea egongo da dirulaguntza eskatzeko, ebazpen hau indarrean jartzen denetik hasita.

6. artikulua.– Eskabideen akatsak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aurkeztu beharreko eskabideek eta dokumentuek ez badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, edo haien edukia ez bada nahikoa, 10 eguneko epearen barnean gabezia hori zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horrela egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio, betiere Administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ondoren.

Akatsak zuzentzeko jakinarazpena elektronikoki egingo da. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko dira. Jakinarazpen hori egindakotzat joko da, interesdunak jaso izana elektronikoki izenpetzen duenean. Jakinarazpena bidali eta hamar eguneko epean interesdunak ez badu edukia eskuratu, ukatu egin duela ulertuko da, eta izapidea egindakotzat joko da prozeduraren arabera, non eta ez den egiaztatzen, ofizioz edo entitate hartzaileak eskatuta, teknikoki edo materialki ezin izan dela jakinarazpen horren edukira sartu.

7. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak finantzatzeko, prestakuntza-ordu bakoitzeko aplikatu daitezkeen gehieneko modulu ekonomikoak 115,42 eurokoak izango dira irakaskuntza-ordu bakoitzeko (modulu horien plangintza egitetik zein gauzatzetik eratorritako kostu guztiak barnean direla).

2.– Prestakuntza-jarduera bakoitzeko, 15 partaiderentzat emango da dirulaguntza, gehienez ere.

15 partaide biltzen ez dituzten ikastaroetan, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera finantzatu da prestakuntza.

15 partaide biltzen ez dituzten ikastaroetan, honako taula honetan ezarritakoaren arabera finantzatu da prestakuntza:

15 partaide edo gehiago: ... % 100

14 partaide: % 98

13 partaide: % 96

12 partaide: % 94

11 partaide: % 92

10 partaide: % 90

10 partaide baino gutxiagoko taldeek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

3.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bitartez gutxienez 10 ikasle biltzen ez dituzten taldeek. Prestakuntza honetan euskararen erabilera sustatzeko, euskarazko taldeak salbuespen izango dira, eta gutxienez 5 ikasle biltzen dituzten taldeak onartuko dira. Euskaraz gauzatzen diren jarduerak honako taula honetan ezarritakoaren arabera finantzatu dira:

15 partaide edo gehiago: % 100

14 partaide: % 98

13 partaide: % 96

12 partaide: % 94

11 partaide: % 92

10 partaide: % 90

09 partaide: % 85

08 partaide: % 80

07 partaide: % 70

06 partaide: % 60

05 partaide: % 50

5 partaide baino gutxiagoko taldeek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

4.– Dirulaguntzaren zenbatekoak barnean hartuko ditu prestakuntza-materialen gastuak.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak dagozkion prestakuntza-eskuburuak emango dizkio doan ikasle bakoitzari. Sobera geratzen diren eskuburuak Osalani itzuli beharko zaizkio.

5.– Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzeko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuz, bazterkeriak prebenitzeko edo ezabatzeke xedearekin eta desgaitasunen bat duten prebentzio-ordezkariek prestakuntza jasotzeko dauzkaten zailtasunak edo desabantailak konpentsatu nahian, komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarri guztiak jarriko ditu Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, deialdi honen kontura ordainduta.

8. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Prestakuntza-ekintza amaitu eta 15 eguneko epean, dirulaguntza jasotzen duen entitateak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa:

– «III. eranskina. Prestakuntza-ekintzaren datuak», dirulaguntza jasotzeko eskabideari loturiko prestakuntza-ekintzan parte hartu dutenen behin betiko datuak jasotzen dituen dokumentua.

– «II. eranskina. Asistentzia-kontrolerako orria» dokumentu eskaneatua pdf formatuan. Prestakuntza-ekintza zein egunetan eman den jaso behar du, ikasle eta irakasle guztien NAN zenbakia, izen-abizenak eta sinadura jasota.

2.– Dirulaguntza hobeto kudeatzeko eta prestakuntzaren kalitatea hobea izateko, dokumentu hauek ere aurkeztuko ditu (helbide elektronikoa deskarga daitezke):

– «IV. eranskina. Prebentzio-ordezkariek parte hartu duen prestakuntza-ekintzaren datuak» dokumentu eskaneatu bakarra pdf formatuan. Zati teknikoa prestakuntza-zentro hautatu batean egiteko aurkeztu diren eskabide guztiak jasoko ditu. Zati arautzaileaz arduratzen diren entitateek soilik aurkeztuko dute dokumentu hau.

– «VI. eranskina. Ebaluazio-galderak. Prebentzio-ordezkariek» dokumentu eskaneatua. Prestakuntza-ekintzako ikasleek erantzundako inkestak jaso behar ditu, eta izena eman duten ikasleen kopurua eta inkesta hau erantzun duten ikasleen kopurua adieraziko dira.

– «VII. eranskina. Ebaluazio-galderak. Irakasleak» dokumentu eskaneatua. Prestakuntza-ekintzaren irakasleak erantzundako inkesta jasoko du.

3.– Aurten deialdi hau argitaratu aurretik eman diren prestakuntza-ekintzen kasuan, aipatutako justifikazio-dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikora bidali beharko da, dirulaguntza jasotzeko eskabide elektronikoarekin batera, 2 hileko epean, ebazpen hau indarrean jartzen denetik hasita.

4.– Justifikazioak eta bete beharreko ereduak izapidetzeko azalpenak eskuragarri daude Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, helbide elektronikoa hauetan:

– Arau-arloa:

Prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarritako prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029804).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-normativa-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-arau-arlokoa-pok/y22-izapide/eu>

– Arlo teknikoa:

Prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarrizko prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029904).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-tecnica-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-teknikoa-po/y22-izapide/eu>

9. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, eta jakinarazteko modua.

1.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak emango du deialdiaren ebazpena, dirulaguntza ematea ala ez erabakitzeke, betiere erakunde horretako teknikariek egindako txostenak aintzat hartuta.

2.– Eskabideek deialdiko betekizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan ebatziko dira, espedientea osatzen den unearan arabera, jarduketa horietarako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura agortu arte. Funtsak agortzen badira, aurkeztu diren eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira deialdi honen esparruan.

3.– Hartutako ebazpena erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie, banaka, gehienez ere bi hileko epean, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Apartatu honetan aipatutako epea igarota ebazpenik jakinarazi ez bada, beren eskabideak ezetsi direla ulertu ahal izango dute erakunde interesdunek, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua.

5.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, haren aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, interesdun bakoitzari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke, zuzenean, bi hileko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Publikotasun-ondorioetarako soilik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira dirulaguntzak emateko ebazpenak.

10. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Izaera pertsonaleko datuak «Prebentzio-ordezkarientzako ikastaroak» deritzon tratamendurako erabiliko dira, xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra); Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak.

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Babes hori aintzat hartuta, izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko oinarritzko informazioa ematen da jarraian:

Tratamenduaren arduraduna	Zuzendari nagusia Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita bidea z.g., – 48903 Barakaldo Posta elektronikoa: osalanscrt@euskadi.eus
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkariek trebatzeko diruz lagundutako ikastaroak kudeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-20977&p=20160520&tn=2) Uztailaren 30eko 125/2018 Dekretua, honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen dituen: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.) (https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/08/1804044a.pdf). Betiere, 1997ko abenduaren 11n sinatu zen EAEko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioan ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.). Legitimazioa, halaber, interesdunen adostasunean oinarritzen da.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	Gai honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie datu pertsonalak. Datuok emango zaizkie, halaber, sindikatuei, prebentzio-zerbitzuei eta prestakuntza-zentro publiko eta pribatuei, baldin eta egiaztatuta badaude oinarritzko prestakuntza emateko prebentzio-ordezkariei, eta halako ikastaroak egiten beharrezko laguntzaile gisa jarduten badute.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta haien tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko, eta, horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko diote lehenago aipatutako tratamenduaren arduradunari. Informazio gehigarrian eskuragarri dago horiei buruzko argibide gehiago.
Informazio gehigarria	Honako web-orri honetan eskuratu daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (http://www.euskadi.eus/rgpd/00758)
Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean; bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Hori guztia hala xedatuta dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan.

Barakaldo, 2019ko apirilaren 4a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
ALBERTO ALONSO MARTÍN.

I. ERANSKINA

ESKABIDEKO PROZEDURETAN JASOTZEN DIREN DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Eranskin honek informazioa besterik ez du ematen, eta helburutzat du entitate interesdunei eza-gutaraztea nolako egitura eta edukia aurkituko duten dirulaguntzaren eskabide elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren euskadi.eus egoitza elektronikoa egitean.

1.– Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa laguntza.

Eusko Jaurlaritzak, DACIMA Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobe-tzeko Zuzendaritzaren bitartez (Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoa eskuduna baita), zenbait jarraibide-gidaliburu sortu ditu Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, pertsonak eta entitateek tramitazio elektronikoa alderdiak ezagut ditzaten eta izapidetze horretan lagungarriak izan daitezten.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa menu horizontalean, «Laguntza» izeneko atal bat sortu da, eta, han, herritarrek eta entitateek eskuragarri izango dituzte izapidetzerako laguntza- eta arreta-gidaliburu horiek.

Laguntza orrira sartzeko bidea hau da: <http://www.euskadi.eus/tramitatzeko-laguntza-eta-arreta/web01-sede/eu/>

Egun gidaliburu hauek daude erabilgarri:

Identifikazio elektronikoa: Ezagut ezazu nola erabili enpresa eta erakundeentzat bideratutako identifikazio-sistemak. <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/identifikazio-elektronikoa-erabiltzeko-gidaliburua/web01-sede/eu/>

Tramitazio elektronikoa: Ikas ezazu pausoz pauso nola tramitatu Interneten bidez Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/tramitazio-elektronikorako-gida/web01-sede/eu/>

Nire karpeta: Nire karpetara nola sartu eta hor zer funtzionalitate aurki ditzakezun azalduko zaizu gidaliburu honetan. <http://www.euskadi.eus/dokumentazioa/nire-karpeta-erabiltzeko-gidaliburua/web01-sede/eu/>

Jakinarazpen elektronikoa: Zer den jakinarazpen elektronikoa eta zertarako erabiltzen den <http://www.euskadi.eus/dokumentazioa/jakinarazpen-elektronikorako-gidaliburua/web01-sede/eu/>

Tramitazioan arazoren bat izanez gero, hona hemen zenbait konponbide:

- Harremanetan jartzea Zuzenean-Herritarrarentzako Zerbitzuarekin, 012 telefonora deituta.
- Tramitazio elektronikoa arazoren bat izanez gero, jarri harremanetan Erabiltzaileentzako (edo entitateentzako) Arreta Zentroarekin, 945 01 68 38 telefonora deituta.

2.– Prebentzio-ordezkariek trebatzeko diruz lagundutako oinarrizko mailako prestakuntza emateko egiaztapena.

Entitate eskatzaileak, dirulaguntza bat eskatu aurretik, egiaztatu beharko du prestakuntza emateko eskakizunak betetzen dituela, uztailaren 30eko 125/2018 Dekretuaren 5. artikulua eta hurrengo arabera.

2018an egiaztatutako entitateek ez dute egiaztatze-eskabiderik aurkeztu beharrik, non eta ez dituzten aldatu egiaztatzeko aintzat hartu ziren baldintzak.

Entitate eskatzaileak, egiaztaturik egon ezean, egiaztapena egiteko eskabidea egin beharko du.

Eskabide berria entitate onuradunen eskura egongo dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektrotan, helbide honetan:

Prebentzio-ordezkariek trebatzeko diruz lagundutako oinarritzko mailako prestakuntza emateko egiaztapena (erref.: 1042406)

Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/autorizacion/formacion-basica-delegados-prevencion/y22-izapide/es>

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/baimena/oinarrizko-prestakuntza-prebentzio-ordezkariek/y22-izapide/eu>

Egiaztapena jakinarazi ondoren, lehen aldiz egiaztatutako entitateak aukera izango du kasuko ikastaroak emateko, eta, horiek eman ondoren, aukera izango du ebazpen honetan jasotako dirulaguntza eskatzeko.

2.– Dirulaguntza eskatzeko prozedura mota.

Eskaera egiteko prozedura elektronikoa baino ez da izango.

2.1.– Arau-arloa: prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarritzko prestakuntzako ikastaroak emateagatik dirulaguntza eskatzeko, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu behar da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren honako helbide elektronikoa honetan:

– Arau-arloa:

Prebentzio-ordezkariei arau-arloan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029804).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-normativa-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-arau-arlokoa-pok/y22-izapide/eu>

2.2.– Arlo teknikoa: prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarritzko prestakuntzako ikastaroak emateagatik dirulaguntza eskatzeko, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu behar da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren honako helbide elektronikoa honetan:

– Arlo teknikoa:

Prebentzio-ordezkariei arlo teknikoan oinarritzko prestakuntza emateko dirulaguntza (erref.: 1029904).

Erdaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/formacion-basica-tecnica-dps/y22-izapide/es

Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/oinarrizko-prestakuntza-teknikoa-po/y22-izapide/eu>

3.– Eskabidea betetzeko jarraibideak.

Eskabidea betetzerakoan, ezinbestekoa da entitatearen edo enpresaren sinadura-txartelak edo ziurtagiri elektronikoa izatea. Gogoan izan zure entitatearen edo antolakundearen izenean diharduzula.

Entitateko titularraren datuak betetzeko jarraibide guztiak aurkituko dituzu eskabidean. Dago-kion ziurtagiri elektronikoarekin edo txartelarekin konektatu ondoren, eskabidean azalduko da zer entitate ordezkatzuz diharduzun. Zerrenda zabalgarrian, hautatu behar duzu zein ordezkatzun duzun; entitate edo enpresa batean baino gehiagotan jardunez gero, aukera zuzena hautatu behar duzu.

Tramitazioaren pausoren batean arazoak izanez gero, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Zerbitzuarekin, bi telefono hauetako batera deituta: 012 edo 945 01 68 38.

Eskabidean, besteak beste, kontzeptu hauek azalduko dira:

- Eskatzailea: entitate juridiko bat izango da beti, hau da, IFK izango du.
- Organo instrukzio-egilea: Osalaneko Zuzendaritza Nagusia da, eta, beraz, ez da beste erre-gistrorik edo izenik sartu behar.
- Espedientean interesdun gisa dihardut: eskatzaile gehienek aukera hau hautatu beharko dute eskabidean, dagokien entitate juridikoaren langile gisa dihardute eta.
- Norbait ordezkatzuz dihardut: baldin eta eskatzailearen langileak Eusko Jaurlaritzaren Erregis-tro Elektronikoan erregistratuta badaude pertsona juridiko baten edo entitate baten langile gisa; kasu horretan, eskatzaileak bere identifikazio elektronikorako bitartekoak erabili ahal izango ditu, lan egiten duen entitatearen izenean. Kasu horretan, gainera, langileak bere entitatearen ordezkari gisa jardun dezake, eta entitatea espedientearen titular gisa agertuko da. Entitateko langile gisa izena emanda dauden langileek aukera izango dute entitatearen jakinarazpenak eta espedien-tearen xehetasunak ikusteko, eta, gainera, agiriak onetsi ahal izango dituzte, euren identifikazio elektronikorako bitartekoarekin (Nire karpeta aplikazioarekin).

4.– Erantzukizunpeko adierazpena.

Entitate eskatzaileak egiaztatu beharko du legedia betetzen duela. Horretarako, zenbait eran-tzukizunpeko adierazpen egin beharko ditu. Erantzukizunpeko adierazpenetan datuak zehatzak ez badira, faltsuak badira edo funtsezko daturen falta bada, Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake, alde batera utzi gabe izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Entitatearen erantzukizuna izango da honako adierazpen hauen edukia egiazkoa dela deklarar-tzea, zeinetan honako hauek adierazi behar dituen:

- Ez dela dirulaguntza edo laguntzarik jasotzen ari, xede eta helburu bererako, ez administrazio publikoetatik ez erakunde pribatuetatik.
- Ez duela zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko legezko debekurik, ez eta, bereziki, sexu-bazterkeriatik ezarritako halako debekurik ere.

– Ez duela zigorrik jaso arau-hauste astunen eta/edo oso astunen ondorioz, azken urteetan, lan-segurtasun eta -osasunaren arloari dagokionez.

– Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean jasotako betebeharrak betetzen dituela, alegia, prebentzio-antolamenduko ereduak, arriskuen ebaluazioa, prebentzio-jardueren plangintza eta, kasua bada, prebentzio-sistemaren ikuskapena.

– Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

– Egiazkoak direla eskabide honetan bildutako datuak eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak.

– Zerga-betebeharrak betetzen dituela.

– Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak ordaindu dituela.

– Ez duela legez kanpoko eta bateraezinak diren dirulaguntzarik jaso estatu-laguntzen araubideen bidez eta, kasua bada, jasotako dirulaguntza eta dagozkion interes ekonomikoak blokeatutako diru-kontu batera itzuli ez dituztela.

5.– Berariaz uko egitea.

Entitate eskatzaileak lauki hau markatu beharko du, baldin eta berariaz onartzen ez badu instrukzio-organoak egiaztatzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekikoak egunean dituela (berariaz uko egitea, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasoa). Aurka egonez gero, dokumentuen bidez justifikatu beharko ditu alderdi horiek (horretarako, «Erantsi dokumentuak» botoia erabil daiteke atal honetan, espedienteari erantsi nahi zaizkion dokumentuen kopia eranstea ahalbidetzen baitu).

6.– Eskabidea sinatzea eta bidaltzea.

Azkenik, entitate eskatzaileak elektronikoki sinatuko du eskabidea, eta bidali egingo du. Eskabidea aurkeztu duela dioen erregistro telematikoa jasoko du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak elektronikoki sinatua.

Erregistro-dokumentuan, hauek jasoko dira: erregistroaren datuak (erregistro-zenbakia, erregistro-eguna eta aurkeztu den eguna), interesdun eskatzailearen datuak, helmuga, gaia eta erantsitako dokumentuen zerrenda.

Jarraian, dirulaguntza eskatzen duten entitateek ebazpenean zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, 15 eguneko epean, gehienez ere, prestakuntza-ekintza amaitzen denetik hasita.

Tramitazioaren pausoren batean arazoak izanez gero, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Zerbitzuarekin, bi telefono hauetako batera deituta: 012 edo 945 01 68 38.

Aurten deialdi hau argitaratu aurretik eman diren prestakuntza-ekintzen kasuan, aipatutako justifikazio-dokumentazioa bidali beharko da, dirulaguntza jasotzeko eskabidearekin batera, 2 hilabeteko epean, ebazpen hau indarrean jartzen denetik hasita.

2019ko apirilaren 30a, asteartea

II. ERANSKINA

PREBENTZIO-ORDEZKARIEN ASISTENTZIA-KONTROLERAKO ORRIA

Ikastaro zk.

Data

Ikastetxea /

ZK.	NAN	Abizenak	Izena	Enpresa	Sinadura
01					
02					
03					
04					
05					
06					
07					
08					
09					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					

Irakaslearen oniritzia: izena, abizenak. Sinadura

Data

Oharrak

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Datu pertsonalen tratamendua:

Tratamenduaren arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusia. Dinamita bidea z.g., - 48903 Barakaldo Posta elektronikoa: osalanscrt@euskadi.eus
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkariek trebatzeko ikastaroak kudeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa. (https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-20977&p=20160520&tn=2) 125/2018 Dekretua, honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen dituena: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.) (https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/08/1804044a.pdf). Betiere, 1997ko abenduaren 11n sinatu zen EAEko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioan ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.). Legitimazioa, halaber, interesdunen adostasunean oinarritzen da.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	Gai honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie datu pertsonalak. Datuok emango zaizkie, halaber, sindikatuari, prebentzio-zerbitzuei eta prestakuntza-zentro publiko eta pribatuari, baldin eta egiaztatuta badaude oinarritzko prestakuntza emateko prebentzio-ordezkariei, eta halako ikastaroak egiten beharrezko laguntzaile gisa jarduten badute.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko, eta, horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko diote lehenago aipatutako tratamenduaren arduradunari. Informazio gehigarrian eskuragarri dago horiei buruzko argibide gehiago.
Informazio gehigarria	Lanbideren web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (http://www.euskadi.eus/rgpd/00758)
<i>Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:</i> Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

2019ko apirilaren 30a, asteartea

III. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-EKINTZAREN DATUAK (2019)

Izena	LAP Prebentzioko Ordezkarientzako Oinarrizko Ikastaroa		Arau prestakuntza (eu)	<input type="checkbox"/>	Prestakuntza tekniko (eu)	<input type="checkbox"/>	
Ekintza zk.	2019/___-N edo T	Parte-hartzaileen kopurua	___	Bukaera data	2019/___/___	Ordu kopurua	___
		Hasiera data	2019/___/___				Ordutegia:

Zeinek ematen duen prestakuntza	Emallearen izen soziala		Non emango den (aurretik adierazitako bera ez bada)		Irakaslea	
	Izen soziala:	Helbidea:	Izen soziala:	Helbidea:	Izen-abizenak	NAN
<input type="checkbox"/> Sindikatua						
<input type="checkbox"/> Ikastetxea						
<input type="checkbox"/> Bestelakoak						
.....	PK:	Herria:	PK:	Herria:	Izen-abizenak	
	Tf.:	Email:	Tf.:	Helb. elek.	NAN	

2019ko apirilaren 30a, asteartea

PRESTAKUNTZA EKINTZAN PARTE HARTUKO DUTENEN DATUAK

ZK.	ABIZENAK	IZENA	NAN	HERRIA	SAKELAKO TF	ENPRESA	TF.	FAXA HELB. ELEK.	HERRIA	IFK
01										
02										
03										
04										
05										
06										
07										
08										
09										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Datu pertsonalen tratamendua:

Tratamenduaren arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusia. Dinamita bidea z.g., - 48903 Barakaldo - Posta elektronikoa: osalanscr@euskadi.eus
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkaritak trebatzeko ikastaroak kurdeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa. (https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-20977&p=20160520&ln=2) 125/2018 DEKRETUA, honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen dituena: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkaritak trebatzeko oinarriko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.) (https://www.euskadi.eus/y22-bop/es/bopv2/datos/2018/08/1804044a.pdf). Bestere, 1997ko abenduaren 1'in sinatu zen EAEko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioan ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.). Legitimazioa, halaber, interesdunaren adostasunean oinarritzen da.
Lagapenen edo transferentzien hartzaleak	Gai honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahaliko zaizkie datu pertsonalak. Datuok emango zaizkie, halaber, sindikatuei, prebentzio-zerbitzuei eta prestakuntza-zentro publiko eta pribatuei, baldin eta egiaztatuta badaude oinarriko prestakuntza emateko prebentzio-ordezkariei, eta halako ikastaroak egiten beharrezko laguntzaile gisa jarduten badute.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haren tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko, eta, horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko diote lehenago aipatutako tratamenduaren arduradunari. Informazio gehigarrian eskuragarri dago horiei buruzko argibide gehiago.
Informazio gehigarria	Lanbideren web-orrian kontsultatu daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (http://www.euskadi.eus/rgpd/00758)
Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:	
Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf)	
Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

2019ko apirilaren 30a, asteartea

IV. ERANSKINA

ORDEZKARIAK PARTE HARTU BEHAR DUEN EKINTZAREN DATUAK

Ekintza zk.	Hasiera data	Bukaera data	Ikasgelaren kokalekua	Ordutegia	Ordu kopurua	Parte-hartzaileen kopurua
2019/___- N	2019/___/___	2019/___/___		___e(ta)tik ___e(ta)ra		

LAP PREBENTZIOKO ORDEZKARIENTZAKO OINARRIZKO IKASTAROA – ARAU-ARLOA

PREBENTZIO-ORDEZKARIEN DATUAK

Abizenak	Izena	Herria ordezkaria
NAN	Sakelakoa tf.	Ordezkararen helb. elek.
Helbidea, jakinarazpenak bidaltzeko	Kalea, zk. pisua	Herria

PREBENTZIO ORDEZKARIAREN ENPRESAREN DATUAK

Enpresaren izena	IFK
Helbidea	PK Herria
Telefonoa	Faxa Enpresaren helb. elek.

.....(e)n, 2019(e)ko.....aren.....(e)(a)n.

Prebentzio-ordezkararen sinadura.

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Prestakuntza tekniko / Ordezkarriak baimendutako zentro hauek hautatu ditu prestakuntza alderdi teknikoarekin osatzeko					
Lehentasun-ordenaren arabera	Herria	Baimendutako zentroa	Helbidea	Euskara	Gaztelania
Hautatutako 1. zentroa					
Hautatutako 2. zentroa					

Datu pertsonalen tratamendua .

Tratamenduaren arduraduna	Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Dinamita bidea, z.g., -48903 Gurutzeta-Barakaldo, Bizkaia). Posta elektronikoa: osalanscrt@euskadi.eus
Tratamenduaren helburua	Prebentzio-ordezkarriak trebatzeko ikastaroak kudeatzea.
Tratamenduaren legitimazioa	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa. (https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-20977&p=20160520&tn=2) 125/2018 DEKRETUA, honako programa honen oinarri orokorrak ezartzen dituena: EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkarriak trebatzeko oinarritzko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programa (2018ko abuztuaren 3ko EHAA, 149. zk.) (https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/08/1804044a.pdf). Betiere, 1997ko abenduaren 11n sinatu zen EAEko Laneko Osasunerako eta Arriskuen Prebentziorako Lanbide Arteko Akordioan ezarritakoarekin bat etorriz (1998ko urtarrilaren 27ko EHAA, 17. zk.). Legitimazioa, halaber, interesdunen adostasunean oinarritzen da.
Lagapenen edo transferentzien hartzaileak	Gai honetan eskumenak dituzten administrazio publikoetara laga ahalgo zaizkie datu pertsonalak. Datuak emango zaizkie, halaber, sindikatuak, prebentzio-zerbitzuei eta prestakuntza-zentro publiko eta pribatuak, baldin eta egiaztatuta badaude oinarritzko prestakuntza emateko prebentzio-ordezkariei, eta halako ikastaroak egiten beharrezko laguntzaile gisa jarduten badute.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko, eta, horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharke diote lehenago aipatutako tratamenduaren arduradunari. Informazio gehigarriari eskuragarri dago horiei buruzko argibide gehiago.
Informazio gehigarria	Lanbideren web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (http://www.euskadi.eus/rgpd/00758)
Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:	<ul style="list-style-type: none"> Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Prebentzio-Ordezkarientzako oinarritzko prestakuntzaren arlo teknikoa emateko baimendutako zentroen zerrenda (data: 2019-01-01)

Lurraldea /	Herria	Entitatea	Helbidea	KP	Euskara	Gaztelania
Araba	Vitoria-Gasteiz	CIFP Construcción LHI «Eraiken» - Gasteiz	Oto hiribidea 33	01010	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Fondo Formación Euskadi S.L.	José Mardones 8	01003	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide)	Frantzia 32	01002	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Fundación Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide)	S. Ignacio 6	01001	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Instituto Europa, S.L.	Domingo Beltrán de Otazu 64 -66 B	01012	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Instituto Europa, S.L.	Manuel Iradier kalea 46, behea	01005	X	X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Integra Soluciones Empresariales, S.L.	Mariano San Miguel musikaria 1, behea	01003		X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Pedro Asua kalea 69 (SEAVI)	01008		X
Araba	Vitoria-Gasteiz	Urko Servicios de Prevención, S. Coop.	Nafarroako Errege-erreginen kalea 51 (Erkide)	01013	X	X

Lurraldea	Herria	Entitatea	Helbidea	KP	Euskara	Gaztelania
Gipuzkoa	Andoain	Fundación Legarra Echeveste – La Salle Berrizpe	La Salle etorbidea 5	20120	--	X
Gipuzkoa	Donostia	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial, S.L.U.	Zubieta 54, behea	20007	X	X
Gipuzkoa	Donostia	Inkor, S.L.	Juan Fermín Glisagasti 2- 1. sol., bul. 114-115 – Zuatzu Empresa Parkea	20018	X	X
Gipuzkoa	Donostia	Nazaret Fundazioa	Aldakorea 36	20012	X	X
Gipuzkoa	Donostia	Urko Servicios de Prevención, S. Coop.	Tejería 19-21 behea	20012	X	X
Gipuzkoa	Donostia	Lanpre Formación, S.L.	Tejería 19-21 behea	20012		X
Gipuzkoa	Eibar	Urko Servicios de Prevención, S. Coop.	Azitain indus., 3 bis	20600	X	X
Gipuzkoa	Errenteria	Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	Agustinas etorbidea z.g.	20100	--	X
Gipuzkoa	Irun	Asociación Pedagógica Mendibil	Letxunborro hiribidea. Anaka indus. 58	20305	--	X
Gipuzkoa	Irun	CEI Formación y Asesoramiento Empresarial, S.L.U.	Juan de la Cruz 2, behea 2	20305	X	X
Gipuzkoa	Irun	HLBHIP-CPEIPS Irungo La Salle	Elizatxo Hiribidea 14-16.	20303		X
Gipuzkoa	Zarautz	Inkor, S.L.	Araba 45 F	20800	X	X
Gipuzkoa	Zumarraga	Urola Garaiko Lanbide Eskola	Beloki Ibilbidea z/g	20700		X

2019ko apirilaren 30a, asteartea

Lurraldea	Herria	Entitateak	Helbidea	KP	Euskara	Gaztelania
Bizkaia	Amorebieta-Etxano	Integra Soluciones Empresariales, S.L.	P.E. Boroa Elkartegia 19, beheka Buleg. 6. pab. 17	48340	--	X
Bizkaia	Barakaldo	Escuela de la Conducta y Prevención, S.L.	Ugartebeitia 7-3. sol. (Innobak eraik.)	48903	--	X
Bizkaia	Barakaldo	Fundación de Trabajadores de La Siderurgia Integral	Dolores Ibaruri pasealekua 80-1 esk.	48901	--	X
Bizkaia	Barakaldo	Integra Soluciones Empresariales, S.L.	Ugartebeitia 7-3. dep. 20	48903	--	X
Bizkaia	Barakaldo	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Labe Garaien etorb. 33 (BIC Bizkaia Eraikina - AHV aretoa)	48901	--	X
Bizkaia	Barakaldo	Urko Servicios de Prevención, S. Coop	Bizkaiko Labe Garaien Etorb. 33 (CEDEMI)	48901	--	X
Bizkaia	Barakaldo-Trapagaran	Fondo Formación Euskadi, S.L.L.	San Vicente errep., 10. km	48510	X	X
Bizkaia	Basauri	CIFP Bidebieta LHII	Lehendakari Agirre 97	48970	--	X
Bizkaia	Basauri	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Nerbioi 5	48970	--	X
Bizkaia	Basauri	Lanpre Formación Sociedad Limitada	Basozelai 11 (Basozelai auzo etxea)	48970	--	X
Bizkaia	Bilbo	Almi Bilbao, S.A.L. (Centro de Estudios Almi)	Lehendakari Agirre 29	48014	X	X
Bizkaia	Bilbo	Juritecnia, S.L.	Arenal 5-1. solairua	48005	X	X
Bizkaia	Bilbo	Nuevas Promociones-Gorapen Berriak, S.L. (UP Formacion)	Arelza Doktorea 39.	48010	X	X
Bizkaia	Bilbo	Sdad. Coop. de Enseñanza Zabalburu	Itxaropen kalea 12	48005	--	X
Bizkaia	Galdakao	Urko Servicios de Prevención, S. Coop.	Lapudi, 27 solairuareta (Alfa Formación)	48960	--	X
Bizkaia	Iurreta	CIFP Iurreta LHII	Olaburu 19	48215	--	X
Bizkaia	Areeta-Getxo	Arrigunaga Asesores, S.L.L. (AGA Formación)	Villa de Plencia 28, 51 beheka	48930	--	X
Bizkaia	Areeta-Getxo	Centro FP Academia Ibaiondo, S.L.L.	Venancio Echevarria 18	48930	X	X
Bizkaia	Leioa	Konectia Servicios Integrales, S.L.	Landabarri pasealekua 3-5. solairua - La Avanzada eraik. - Artaza	48940	X	X
Bizkaia	Loiu	Instituto de Formación Práctica dE Riesgos Laborales, S.L.	Txorierrri etorb. 16	48180	X	X
Bizkaia	Markina-Xemein	Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, S. Coop.	Xemein etorbidea 19	48270	X	X
Bizkaia	Portugalete	CIFP Repelegete LHII	Miguel de Unamuno 19	48920	X	X
Bizkaia	Santurtzi	CIFP San Jorge LHII	Pajares 34	48980	--	X

2019ko apirilaren 30a, asteartea

VI. ERANSKINA

IKASLEENTZAKO EBALUAZIO-GALDERAK

Zentroa	
Herria	
Data:	
Taldea:	

Oharrak:

Eman egokien iruditzen zaizun puntuazioa	6: oso ondo, asko, ezin hobea, egokia --1: oso txarto, oso gutxi, eskasa, desegokia
--	---

Informazio hau isilpean gordeko da. Erantzun galdera guztiei, mesedez:

1	Zer iruditu zaizu ikastaroaren antolaketa	1	2	3	4	5	6
2	Zer iruditu zaizu gai bakoitzari eskainitako denbora	1	2	3	4	5	6
3	Nolakoa izan da bertaratuen parte-hartzea	1	2	3	4	5	6
4	Nolakoa izan da taldeko giroa?	1	2	3	4	5	6
5	Zure ustez, eman al dizu ikastaroak PO lanak egiteko behar besteko ezagutza	1	2	3	4	5	6
6	Lortu al du irakasleak ikasleen interesa erakartzea?	1	2	3	4	5	6
7	Ikastaro praktikoa izan da?	1	2	3	4	5	6
8	Balora itzazu irakaslearen ezaguerak eta esperientzia	1	2	3	4	5	6
9	Ikasgaien edukia egokia iruditu zaizu?	1	2	3	4	5	6
10	Uste al duzu ikastaroaren edukia lanerako baliagarri izango zaizula?	1	2	3	4	5	6
11	Eskuliburuak informazio osagarria ematen dizu?	1	2	3	4	5	6
12	Ondo egon la lokala?	1	2	3	4	5	6

Ikastaroan, zer gustatu zaizu gehien?

.....

.....

Ikastaroan, zer gustatu zaizu gutxien?

.....

.....

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK

2019ko apirilaren 30a, asteartea

VII. ERANSKINA

IRAKASLEENTZAKO EBALUAZIO GALDETEGIA

Zentroa	
Herria	
Datak:	
Taldea:	

Oharrak:

Eman egokien iruditzen zaizun puntuazioa	6: oso ondo, asko, ezin hobea, egokia --1: oso txarto, oso gutxi, eskasa, desegokia
--	---

Informazio hau isilpean gordeko da. Erantzun galdera guztiei, mesedez:

1	Ikasleak argi eta garbi jabetzen dira ikastaroaren edukiez	1	2	3	4	5	6
2	Gaiak eta haien edukiak egokiak	1	2	3	4	5	6
3	Gaiei eskainitako denbora egokia da	1	2	3	4	5	6
4	Baliabide didaktikoak nahikoak dira	1	2	3	4	5	6

Edukiak

5	Gaien azalpena erraza da	1	2	3	4	5	6
6	Ikastaroa praktikoa da	1	2	3	4	5	6

Parte-hartzaileak

7	Puntualtasuna eta ordutegia bete dira	1	2	3	4	5	6
8	Motibazio-maila handia izan da	1	2	3	4	5	6
9	Parte-hartzea handia izan da	1	2	3	4	5	6
10	Giro jatorra egon da	1	2	3	4	5	6
11	Prestakuntza-maila antzekoa zen	1	2	3	4	5	6
12	Oro har izandako aprobetxamenduaren estimazioa	1	2	3	4	5	6

Oharrak:

.....

.....

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK